

Xedapen Orokorrak

LEHENDAKARITZA

3059

346/1994 DEKRETUA, abuztuaren 29koa, Eusko Legebiltzarra ezabatu eta hauteskundeetarako deia egiten duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 7.c) eta 50. atalek Lehendakariari aitortzen dioten ahalmenaz baliatuz eta, 1994ko abuztuaren 29an izandako bileran, manuz agindutako eztabaida Jaurlaritzak egin ondoren, Eusko Legebiltzarra ezabatzea eta hauteskundeetarako deia egitea erabaki dut. Ondorioz, aipatutako manuen indarrez eta Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 46. atalean xedatutakoarekin eta ezargarri diren gainera legeekin bat etorritz, honako hau

XEDATU DUT:

1. *atala.*– Eusko Legebiltzarraren ezabaketa eta hauteskundeetarako deia.

1.– 1990eko urriaren 28an hautatutako Eusko Legebiltzarra ezabatuta gelditzen da.

2.– Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako deia egiten da, 1994ko urriaren 23an, igandea, egiteko.

2. *atala.*– Hautatu behar diren legebiltzarkideen kopurua.

Euskal Herriko Autonomia Estatutaren 26. atalean eta ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 10. atalean ezarritakoaren arabera, 25 legebiltzarkide hautatuko dira hauteskunde barruti bakoitzeko.

3. *atala.*– Hauteskunde kanpaina.

Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 68.2. atalarekin bat etorritz, hauteskunde kanpainak hamabost (15) eguneko iraupena izango du. Hasi, urriaren 7ko 00:00 orduetan hasiko da, eta amaitu, urriaren 21eko 24:00 orduetan amaituko da.

AZKEN XEDAPENA

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 46.3. atalean xedatutakoaren arabera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean Dekretu hau.

Donostia-San Sebastián, 1994ko abuztuak 29.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA

3059

DECRETO 346/1994, de 29 de agosto, por el que se disuelve el Parlamento Vasco y se convocan elecciones.

En ejercicio de la facultad que atribuyen al Lehendakari los artículos 7.c) y 50 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, efectuada la preceptiva deliberación del Gobierno en reunión celebrada el día 29 de agosto de 1994, he resuelto disolver el Parlamento Vasco y convocar elecciones. En consecuencia, en virtud de los preceptos citados y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 46 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, y demás legislación aplicable,

DISPONGO:

Artículo 1.– Disolución del Parlamento Vasco y convocatoria de elecciones.

1.– Queda disuelto el Parlamento Vasco elegido el día 28 de octubre de 1990.

2.– Se convocan elecciones al Parlamento Vasco que se celebrarán el domingo día 23 de octubre de 1994.

Artículo 2.– Número de parlamentarios a elegir.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 26 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y 10 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, se elegirán 25 parlamentarios por cada circunscripción electoral.

Artículo 3.– Campaña electoral.

De conformidad con el artículo 68.2 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, la campaña electoral durará quince (15) días. Comenzará a las cero horas del día 7 de octubre y concluirá a las veinticuatro horas del día 21 de octubre.

DISPOSICIÓN FINAL

Con arreglo a lo dispuesto en el artículo 46.3 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, el presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 29 de agosto de 1994.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.